



2016/06/25

GAUTENAREKIN EGINDAKO AKZIOEN TXOSTENA



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingaratze eta Lantze
Oreko Departamentua



Aurkibidea

1)ERAGILEEN AUKERAKETA	5
Kontaktatzea:	5
2)PROIEKTUAREN GARAPENA	6
Hasiera:	6
Informazio bilaketa:	6
Testuingurua:	6
Inkestak:	8
Jimmyrekin egindako bilerak:	8
Famatuekin kontaktatu:	9
Retroplaying-a:	9
Proiektuentzako materialaren prestaketa:	9
Ekitaldiko gidoia:	10
3)ASTEBUKAERA URDINA	11
Ekitaldiaren egitura:	11
Tailerraren difusioa:	12
Behar teknikoak eta materialak:	13
Egitaraua:	14
Emaiza finala:	14
4) ONDORIO OROKORRAK	15
Ondo atera zena:	15
Gaizki atera zena:	16
Aldatu beharko litzatekeena:	16
Ikasitakoa:	17
Ekitaldi ondorengo elkarrizketa Jimmyrekin (Gautena)	17
5) EKITALDIAREN ONDOREN	20
Markoa:	20
Zer?	21
Kolaborazioaren ikuspuntuak:	21
Norentzat?	22
6) TRESNAK EDO ERREMINTAK	23

Trello:	23
Proiektuaren pentagonoa:	23
ESKERRAK	26
Fitxa teknikoa:	26
Erredakzioa: Ekaitz Bezunartea, Mikel Rodriguez, Martin Zozaya eta Laura Zuazola.	¡Error! Marcador no definido.

URDINDUZ GAUTENA

**AUTISMOAREN ALDEKO IBILALDI SOLIDARIOA
MARCHA SOLIDARIA POR EL AUTISMO**

HURBILDU!
¡ACERCATE!

17 Abril, domingo
11:30h.

Haizearen Orrazia - Alderdi Eder
Peine del Viento - Alderdi Eder

LAGUNTARAKI
COLABORAN

EGI-LYZE

INSARUS

ausolan

LABORAL

jeuzko
bendino

gaze GAUTENA

**HIPERSENSIBILITATE
SENTSORIALA**

gaze GAUTENA

**OROITZAPEN
BISUALA**

gaze GAUTENA

PIKTOGRAMAK

gaze GAUTENA

Deusto

Deusto

Deusto

Deusto

Martxa Urdineko kartelak

1)ERAGILEEN AUKERAKETA

GAZEkideak ezagutu ginen bezain pronto, Gaze:Kaleidoskopio proiektuaren eduki teorikoak banatu zitzaizkigun. Era honetara, lantzen ari ginen konpetentzien kontzientzia lortu genuen eta taldean lan egiteko era berri bat garatzeko aukera izan genuen. Teoria hau, asteak pasa ahala joan ginen jasotzen eta aurrerago esplikatu den pentagonoan laburbiltzen dira proiektu honen oinarri teorikoak.

Ostean, zer-nolako eragileekin lan egin nahi genuen erabakitzeko ordua iritsi zen. Lehenik, eragile zehatzak eta jorratzea gustatuko litzaizkigukeen tematikak aipatu genituen, egundoko eragileen zerrenda atera zelarik. Ondoren, bozketa baten bitartez batzuk aukeraketa finalerako izan ziren hautatuak, hauekin lehen kontaktu bat ezarri zen, Gaze:Kaleidoskopiok zertan datzan, zer egin nahi dugun eta beraiek zer balio erantsi diezaguketen hitz egin zelarik. Bukatzeko, beste bozketa baten bitartez lan egingo genuen eragileen zerrendatxoa atera zen, lan egin behar genuen eragileei, beraiekin lan egin behar genuela konfirmatuz, eta besteei ezezkoa emanaz.

Kontaktatzea:

Eragile sozialak aukeratuak, GAZEkideak horietan banatu gintuzten, beti ere disziplinarreak dakarren aberastasuna eta gure bozkaketa kontuan edukiz. Hala, 4-5 pertsonako taldeetan lanari ekin genion, bakoitzak zegokion eragile sozialarekin kontaktatu, bilerak egiten hasi eta proiektu bakoitzari forma emanaz.

2)PROIEKTUAREN GARAPENA

Hasiera:

Gautena elkartearekin harremanetan jarri ginen gure gizarteak autismoa zertan datzan ikus dezan, izan ere, gaur egungo gizartean gai honen inguruan informazio hutsune edota gabezia handia dagoela ikusi genuen.

Hori ikusita, sentsibilizazio tailer bat antolatzea egokia iruditu zitzaigun. Azken batean, inklusiboagoa izan daitekeen gizarte baten bilaketan ezinbestekoa da gizabanakoak kolektibo honen beharrak, ahuleziak, gaitasunak... ulertzea.

Honen harira, Gautenak urtero ospatzen duen aste-bukaera urdina aprobetxatu genezakeela iruditu zitzaigun. Tailer honekin lortu nahi izan genuena, espekto autistaren inguruko mundua ezagutaraztea eta aurreiritziak ezabatzea izan zen, baita nolabait kolektibo hau gizartera gerturatzea ere.

Informazio bilaketa:

Hala ere, kontaktatu bezain pronto, jorratu egin behar genuen autismoaren gaien kokatzeko eta testuinguratzeko, horren inguruko informazioa bilatzen jardun genuen. Horretarako, Gautenaren orrialdea, Bizkaian autismodun pertsonekin lan egiten duten beste elkarte baten web-a, Espainia mailako autismodun web orrialdea, artikuluak, hitzaldiak, bideoak ... ikusi genituen eta informazio txostentxo bat eratu genuen Drive-n. Hona hemen laburpen bat jasotako informazio horren inguruan.

Testuingurua:

GAUTENA izena Autismoaren Gipuzkoako Elkartearen akronimotik sortua dago (1978an sortu zen). Etekina ateratzeko asmorik ez duen erakundea da eta autismoaren espektoa nahasita duten pertsonak (TEA) osatzen dute. Elkarte

dagoen gizartean giltza diren erakundeekin lotura estua du eta laguntza ematen dion taldeari arreta modu profesionalean kudeatuta ematea du ezaugarri.

Haien zerbitzuen bidez zera lortu nahi dute: TEA duten Gipuzkoako pertsonak izan ohi dituzten beharrei modu osoan eta, ahal izanez gero, bizitza osoan erantzuten saiatzea, bai behar klinikoei, bai hezkuntzaren arlokoiei, bai aisialdikoiei, bai lanekoei eta bai etxebizitzari dagozkienei ere. Pertsona horientzako eta beren familientzako bizitza kalitate ona lortu nahian dabilta. Hori dela eta, senideentzako, esate baterako, sostengu programak, egonaldi laburrak eta etxeko arreta zerbitzua dituzte.

Gautenaren lehen helburua gizarte hobea lortzea da; gaitasunik eza duten pertsona guztiak, bai eta TEA duten gaixoak ere, ongi hartuko eta lagunduko dituen gizartea, hain zuzen ere.

Baina, zer da autismoa delako hori?

Lehenik eta behin, esan beharra dago TEA-ren (Trastorno del espectro autista) barne, autismo mota desberdinak aurkitu daitezkeela, besteak beste: Trastorno autista, asperger, rett...

Halere, TEA-ren barne dauden autismo mota guztiak ezaugarri zehatz batzuk elkarbanatzen dituzte, izan ere, hainbat eremutan moldatzeko zailtasunak dituzte:

- Komunikazioan (berbal zein ez-berbala).
- Pertsonekin interakzionatzean.
- Ekintza desberdinak burutzean.

Bestetik, aipatu beharra dago espektro autista pairatzen duten pertsonak patroiz errepikakor eta monotono bat jarraitzen dutela momentu oro.

Inkestak:

Guzti honen ondoren, gizartean autismoaren gaiaren inguruan zer-nolako jakintza maila, aurreiritzi, jabetze... zegoen aztertze aldera, gure gertuko jendeari, guk geuk sortutako inkesta bat pasa egin genien.

Galdeketa hauek pasa eta emaitzak aztertu ostean, ondorio batzuk atera genituen:

- Jendeak orokorrean ez dauka ideia askorik autismoaren inguruan.
- Autismoaren gaiak gertutik ukitzen ez badu pertsona, ez dago interesik horrelako gaien inguruan jakiteko.
- Gai hauek ezagutarazi egin behar dira, gizarte integral baten bilaketan.

Jimmyrekin egindako bilerak:

Prozesu osoan zehar, ideiak konpartitzeko, ekarpenak elkar jartzeko, proposamenak baztertu edo onartzeko, proiektua finkatzeko ... edo dena delako Jimmy-rekin (Gautenako ordezkaria) hainbat bilera egin izan ditugu prozesu guztian zehar. Bilera guzti hauek, bai Gaze:Kaleidoskopioren egoitzan, bai Gautenako kokalekuan gauzatu izan dira, beti ere lan kooperatiboaren ideia helburu izanik.

Egia esan, hasiera batean ez genekien oso ondo zer egin genezakeen, izan ere, nahiz eta autismoaren inguruko informazioa eskuratu, irakurri, ulertu eta horren inguruan busti, ez genuen zer-nolako ekintza zehatzik egin zitekeen ikusten. Halere, gauzak asko erraztu zigun elkarlan honetaz baliatu ginen (denok beti norabide berean mantentzeko lagundu baitu), azken finean, feedback-aren bitartez ideia anitz atera ziren, batzuk bidean geratu eta baztertu zirelarik, eta nola ez, beste batzuk aurrera eraman eta proiektu bihurtu zirelarik.

Famatuekin kontaktatu:

Botatako proposamen guztietatik denak posible ez zirela ikusita, behin proposamen batzuk baztertuta geratu zirela, eta proiektua egituratzeko proposamena zehaztu zela, asteburu urdineko ekitaldiari difusio gehiago emate aldera famatuekin kontaktatzea pentsatu genuen.

Horretarako, famatuen zerrenda bat egin genuen eta beraiekin email bidez kontaktatu genuen. Nahiz eta hasierako famatuen zerrenda handia izan, gutxi batzuk izan ziren erantzun zutenak. Jarraian, baiezkoa eman zigutenei Gautenako kamiseta eraman genien beraiek sare sozialetan argazki bat publikatu zezaten aste-bukaera urdina ezagutarazteko. Sare sozialetan publikatu zutenen artean, Lauroba, Barbara Goenaga, Martin Berasategi eta Aritz Aranburu.

Retroplaying-a:

Proiektua finkatzen gindoazen heinean, honek zentzua ez galtzeko eta aberastasuna bilatze aldera, retroplaying bat burutu genuen. Bertan, gure helburu nagusiak eta espezifikoa nabarmendu eta egin beharrekoak nork eta noizko egin behar zituen finkatu genituen. Honen bidez proiektuaren bisio global bat jaso genuen eta batez ere denborak kontrolatzeko lagungarria izan zen.

Proiektuentzako materialaren prestaketa:

Behin proiektua finkatuta zegoela, hori burutzeko materiala prestatzen hasi ginen. Hipersentsibilitate sentsoialaren postuarentzako audio bat sortu genuen programa informatiko desberdinez baliatuz. Bertan, autismodun ume batek eskolan gerta dakioken egoera bat irudikatu genuen. Audioaren bidez, entzuleak umearen sentrazioak jasan zituen, umea hobeto ulertuz.

Piktogramen posturako, zenbait piktograma berrerabili eta haietan pegatina batzuk itsatsi genituen. Oroitzapen bisualeko posturako berriz, marrazki jakin batzuk bilatu

eta inprimatu genituen. Honetaz gain, modu bisual batean erakargarriagoa izateko, postu bakoitzerako kartelak sortu eta inprimatu genituen TAMA denda informatikoan.

Ekitaldiko gidoia:

Behin material guztia eskuan genuela, eta gainontzeko GAZEKideei proiektua zehatz mehatz zeren inguruan joango zen azaldu ostean, behin ekitaldira zenbat GAZEKide joango ginen finkatu genuenean, orduan, asteburu urdinaren inguruko gidoi bat egin genuen, ekitaldira joan behar ginen GAZEKide guztiak irakurri eta kontuan hartu genuena. Bestalde, beste GAZEKideak hobeto prestatuak joan zitezen, oinarri teoriko garrantzitsuenak esplikatzen genizkien autismoaren inguruan, edozein galderaren aurrean jakin zezaten zer erantzun.

3) ASTEBUKAERA URDINA

Ekitaldiaren egitura:

Aurretiaz aipatu bezala, asteburuko ekitaldia bi egunetan bereizi zen, larunbata eta igandea, alegia.

Alde batetik, larunbatean, Alderdi Eder-eko karpan, GAZEkideok, Gautenaren laguntzarekin hiru postu jarri genituen. Itsasotik gertuen, Piktogramen postua izan zen, ondoren kaskoen postua eta hirugarren postu bezala ikus oroimenezkoa eduki genuen.

Lehenengo postua, autismodun pertsonen erabilitako komunikazio sistema efektibo bat jendeari erakuste aldera burutu zen. Hemen, piktogramen bidez pelikula famatuen izenak irudikatu ziren, eta jendeak izen hauek asmatu behar izan zituen.

Bigarren postua, espektro autistako pertsonen pairatzen duten hipersentsibilitate sensoriala helaraztera bideratuta egon zen. Horretarako, gerturatutako pertsonen kaskoak jarri eta audio bat entzun izan zuten, ondoren haien sentsazioak azalarazi eta elkar jarri zituzten. Guk grabatutako audio horretan transmititzen zen, espektro autistako pertsonen nola jasotzen dituzten ingurutik datozkien soinu guztiak.

Hirugarren postua, memoria bisualari buruz izan zen, autismodun pertsonen oso memoria bisual ona baitaukate. Bertan, etorritako pertsonen 15 segundo eduki zituzten irudi bat ikusteko eta bisualki aztertzeko, ondoren irudi bera jarri zitzaion baina aldaketa batzuekin. Gerturaturiko pertsonen eginiko aldaketak zeintzuk ziren asmatu behar izan zituzten.

Beste aldetik, asteburu urdineko bigarren egunean, igandean, martxa urdinari eman zitzaion protagonismoa, haize orrazitik alderdi eder-eraino egin zen ibilaldia. Goiz honetan, gure egitekoa batez ere kontrari zatorren jendeari martxa urdina zatorrela jakinarazi eta parte hartzera animatzea izan zen. Bestalde, autismoari

buruzko informazioa banatu genuen, errealitate hori jende gehiagorengana iristeko helburuarekin.

Tailerraren difusioa:

Tailerra gizabanakoari iritsarazteko hainbat bide erabili genituen:

- Gure sare sozialak erabili genituen. Facebook, Twitter eta Instagram-en tailerraren berri eman genuen hainbat alditan. Era berean, gure web-guneko bloga ere erabili genuen difusioa egiteko.
- Lehen esan bezala, hainbat famatuekin (Martin Berasategui, Aritz Aranburu, Barbara Goenaga, Lauroba) kontaktatu genuen, haien sare sozialetan ekitaldiaren berri eman zezaten.



Martin Berasategiren publikazioa



Barbara Goenagaren publikazioa twitter

→ Azkenik, Whatsapp eta bestelako ahoz-ahozko difusioa ere erabili genuen lagun gertukoena gonbidatzeko asmoz.

Behar teknikoak eta materialak:

- Postuetarako hiru kartel.
- Hiru kasko.
- Bi ordenagailu eramangarri.
- Egiatagiriak.
- Gaze: Kaleidoskopio eta Gautenako kamisetak.
- Oroitzapen bisualeko irudiak.
- Piktogramak.
- Zeloak.
- Kartulinak.
- Bi mahai.
- Triptikoak.
- Boletoak.
- Petoak.

Egitaraua:

→ Egunak:

*Apirilaren 16a (16:30-19:30)

- Alderdi Eder-eko karpan

*Apirilaren 17a (10:30-12:30)

- Haize orrazitik Alderdi Ederrera

Larunbata:

16:00-16:30 GAZEkideak elkartu eta postuak prestatu.

16:30-19:30 Dinamikak egin eta jendea erakarri.

19:30-20:00 Jaso eta hurrengo egunerako prest utzi.

Igandea:

10:30-11:15 Haize orrazian elkartu eta beharrezko materiala jaso.

11:15-12:00 Triptikoak banatu eta jendea informatu.

12:00-12:30 Martxa Urdinarekin Alderdi Ederrera joan.

Emaiza finala:

Ekitaldia oso ondo atera zen, jende asko gerturatu baitzen bai larunbatean, bai igandean. Larunbateko postuak jendeari autismoa pairatzen duten pertsonen errealitatea helarazteko oso baliagarriak izan ziren, izan ere ulerterrazak ziren eta edukiaren aldetik oso landuta zeuden. Azken emaitza gisa bideo bat sortu genuen, non bi egunetako momenturik onenak aurkezten diren.

→ Partaideak (aste-bukaera osoan zehar):

Gautena: 50-100 kide eta boluntario inguru.

20 GAZEkide eta idazkaritza teknikoa.

Bertaraturikoak: 1500 pertsona inguru.

4) ONDORIO OROKORRAK

Gautenarekin aurrera ateratako proiektu honen bidez, autismoaren errealitatea zabaltzea geneukan helburu "Aste bukaera Urdinaren" bidez.

Larunbatean, karpatik 300 bat pertsona inguru pasa ziren dinamikak eginez han egon ginen 3 orduetan. Era dibertigarri batean lortu genuen jendea kontzientziaztea eta zentzu horretan helburua bete genuen.

Igandean berriz, martxa urdinaren difusioaz arduratu ginen batez ere, bai sare sozialetan bai kalean bertan. Sare sozialetan, espero zena baina famatu gutxiagok kolaboratu zuten, hala ere egin zutenak erreperkusio handia izan zuten. Kalean, orokorrean jendearen aldetik erreakzio positiboa jaso genuen eta azkenean 1500 bat pertsonak hartu zuten parte martxan, emaitza benetan positiboa.

Ekitaldia amaitu ostean, hau da GAZEKideok egin genuen balorazioa.

Ondo atera zena:

- Kasu egin ziguten famatuak (Martin Berasategi, Barbara Goenaga, Lauroba, Aritz Aranburu) erreperkusioa izan zuten, batez ere Martinek (2500 like, 200 aldiz konpartitu, 60 komentario ...)
- Ezustekoei ondo egin zitzaien aurre:
 - Karpako atzeko atea ireki genuen jende gehiago gerturatzeko.
 - Eguraldiagatik karpa barruan egin genituen dinamikak.
 - Hasieran jendea ez zetorrela ikusita, jendearen bila joan eta erakarri.
- Gidoia argi zegoen GAZEKide guztiak jakin zezaten zer egin eta esan egoera bakoitzean.
- Jendea puntuala izan zen.

- Implikazioa jaun eta jabe izan zen eta hori jendearengana transmititu zen.
- Argazki eta bideo apartak atera ziren.
- Bukaerako erreportajea bikaina izan zen.
- Eguraldiari aurre egin genion.
- Adin desberdinetako jendearengana iritsi ginen.
- Planifikazioa ona izan zen, bai larunbatean, bai igandean. GAZE kideok antolatuta eta koordinatuta egin genuen lan.
- Sare soziletan egidako difusioa eta ekitaldiaren jarraipena egokia izan zen, izan ere, ekitaldia baino lehen publikazio ezberdinak egin genituen sare sozialetan, baita ekitaldia gauzatzen ari zen bitartean ere.
- Gautenak eta batez ere Jimmy-k emandako laguntza aipatzekoa da, asko erraztu ziguten lana.
- Gaze: Kaleidoskopio eta Gautenaren arteko elkarlana ondo adierazi zen bien kamisetak erabili baitziren ekitaldiko bi egunetan.

Gaizki atera zena:

- Zozketa prestatu zen baina larunbatean papertxoak ez zirenez banatu, ezin izan genuen egin.
- GAZEko pegatina ez genuen erabili.
- Postuetako kartelak berandu hasi ginen diseinatzen, eta nahiko sinpleak izan ziren.
- Uste baino famatu gutxiago egin ziguten jaramon.
- Audioaren bolumena ez zen guztiz egokia (zertxobait baxu entzuten zen).

Aldatu beharko litzatekeena:

- Kartelak lehenago diseinatu, bai kalitate hobea izateko eta denbora aldetik ondo ibiltzeko.
- Famatuaren gainean egon publikatu behar dutenera arte.
- Gautenarekin azken xehetasunak lotu behar ziren, ez genekien karpan lekua izango genuenik.

- Kanean soinua izaten dela kontuan hartuz, kasko hobeagoak lortu behar izan genituen.

Ikasitakoa:

- Ekitaldiak GAZE kideentzat ere badirela eta horietatik asko ikasi daitekeela:
 - Autismoaren errealitateaz ohartu, ulertu eta ikasi genuen.
 - Autismoaren inguruan egiten den lanaz eta dagoen jende kopuruaz ohartu.
- Jendearenganako errespetua: kaletik zerbait eskaintzera datozkizunean, eskaintzaren atzetik pertsona bat dagoela eta beti errespetuarekin erantzun behar dela.
- Jendearengana hurbildu behar dela askotan hasierako barrera horiek puskatzeko, zaila dela jendea boluntarioki zuregana etortzea.
- Publikatu arte ezin gara famatuez fidatu. Hurrengo baterako pixka bat gainean egon beharko gara publikatzen dutela ziurtatzeko.
- Leku jakin bat topatu non A2 tamainako kartelak inprimatu daitezkeen.

Ekitaldi ondorengo elkarrizketa Jimmyrekin (Gautena)

1.- Zer nolako balorazioa egiten duzu asteburu urdinaren inguruan?

Oso ona, antolatutako guztia oso ondo joan zen. Hasieran beldurrez, eguraldia dela eta, baina azkenean eguraldia aldatu eta aguantatu egin zuen. Gainera, jende asko gerturatu zen eta parte hartzea handia egon zen. Intzidentziarik ez zen izan.

2.- Gaze: Kaleidoskopioren laguntza baloratu ezazu.

Familientzako oso esperientzia ona izan dela ikusi dut, asko laguntzen du jende gaztea inplikatu egin dela ikustea, lan egiten, laguntzen... Familientzako oso gauza aberasgarria izan da, oso puntu positiboa gazteak inguruan ikustea.

3. Uste adina jende gerturatu al zen?

Bai, antolaketan egon zen jendearentzako kopuru egokia gerturatu zen. Jende gehiago gerturatu izan balitz, agian arazoak izango genituzke erantzuteko. Espero zen jende kopurua etorri zen, oso kopuru ona dena ondo ateratzeko.

4.- Nola bizi izan duzue asteburua?

Alde batetik tentsio handiarekin, dena ondo ateratzeko gogoia geneukan ... Nekatuta ere... Baina guzti horren gainera oso ondo, oso gustura, jendearekin parte hartzea oso ona izan baitzen, orokorrean oso pozik.

Jimmy Brosa Paz



**Magisteritzan diplomatua, eta hezkuntza
Zientzietan lizentziatua (Pedagogia)**

Jimmy Brosa Paz, Gautenako kide garrantzitsu bat da. Izan ere, berari dagokio aisialdi eta denbora libre zerbitzuaren kudeaketa. Bestetik, Jimmy bera, Gaze:Kaleidoskopio eta Gautenaren arteko zubi lan ikaragarria egin du burutu izan dugun elkarlanean. Gure kontaktu zuzena izan da, bilera anitz egin izan ditugula proiektua zehazte aldera.

Harremanetan jartzeko prozesua. Gautenako web orrialdean arakatu ondoren, e-mail bat bidali ondoren eta Gautenan lan egiten duten hainbat pertsonekin hitz egin ondoren, Jimmy-ren telefono kontaktua eman ziguten, berak kudeatzen baititu horrelako zeregin eta ekintzak.

5) EKITALDIAREN ONDOREN

Martxa urdinaren ostean, Aritz Aranburuk idatzi zigun, gure korreoa spam moduan iritsi zitzaionez ezin izan zigula lehenago erantzun izan. Ekitaldia pasa zenez, galdetu zigun ea nola lagundu zezakeen. Gure artean hitz egin ondoren, erabaki genuen aprobetxatu genezakeela, Gautena ezagutarazteaz gain, Gaze:Kaleidoskopio proiektua ere nabarmendu genezakeela. Horretarako, martxa urdinaren ostean egin genituen bideoa eta artikulua bidali genizkion. Berak, laguntasun handiz, zabaldu zituen bere sare sozialetan eta espero genuen bezala, jende askok partekatu eta ikusi zuen.



Aritz Aranburu
25 de abril a las 19:18 · 🌐

Gautena y GAZE:Kaleidoskopio celebraron la Marcha Azul el pasado 16 de abril para concienciar a la gente sobre el autismo. Hay mucha más gente de lo que pensamos conviviendo con esta realidad a diario. Toda la fuerza y el apoyo para ellos y sus familias.

<https://gaztekintzaile.wordpress.com/que-es-kaleidoskopio/>

5052 reproducciones

Me gusta Comentar Compartir

193 Comentarios destacados *

20 veces compartido

Markoa:

Matxa urdina amaitu ondoren, harro geratu ginen egin genuen lanagatik. Hala ere, sentsibilizaziotik haratago joan behar genuela iruditzen zitzaigun eta zer egin genezakeen pentsatu ondoren, marko bat proposatzea iruditu zitzaigun. Marko

honen bidez, UPV/EHU eta Gautenaren arteko kolaborazio bat sortu nahi zen, non alde bateko ikasleek, autismodun haurrei lagunduko zieten beraien ikasketetan.

Proposamen hau egin genuenean, Gautenaren aldetik arrera oso positiboa jaso genuen, horrelako zerbaitetan jada pentsatzen ari baitziren. Jarraian, UPV/EHU-rekin jarri behar ginen kontaktuan eta horretarako, Gipuzkoako Campuseko Errektoretzarekin jarri ginen kontaktuan email bidez bilera bat egin ahal izateko. Ondorioz, markoa hobeto definitu genuen, bilera hobeto prestatu ahal izateko. Hona hemen gure markoan proposatutako puntu garrantzitsuenen laburpena:

Zer?

Apuntatzen diren ikasleak lau-hilabete baterako konpromisoa hartzen dute. Lau-hilabete honetan astean behin Gautenara joan beharko dira ikasleak, bertan ordubete igarotzeko autismodun haurrei etxeko lanekin laguntzen. Guzti hau, beti astean zehar izango da. Sesio horietan, Gautenako arduradun bat egongo da beti, behar duenari laguntza eskainiz.

Bestalde, guztiarekin hasi baina lehen ikasle guztiak formakuntza saio bat jasoko dute, autismo hobeto uler dezaten eta momentu bakoitzean nola jokatu behar duten ikasteko.

Kolaborazioaren ikuspuntuak:

Ikasleak:

- Ezin du konpromiso handia suposatu eta denbora eta distantzia kontuan hartu behar da.
- Ikasleentzat proposamen erakargarria izan behar du (kredituak).
- Ikasle unibertsitarioak.
- Garapen pertsonala.
- CV.

Gautena:

- Jende gaztearengana iritsiko lirateke.
- Autismoa duten umeak, ez dute beti errealitate berdina ikusten.
- Gautena ezagutzera emango da.

Norentzat?

UPV/EHU-ko ikasleentzat zuzendua.

1. Psikologia.
2. Gizarte hezkuntza.
3. Lehen hezkuntzako gradua.
4. Haur hezkuntzako gradua.
5. Pedagogia gradua.

Bilera

Bilera, UPV/EHUko egoitza nagusian (Julianategi) izan zen eta bertara, Jimmy (Gautena), Borja (Idazkaritza Teknikoa) eta GAZEKide bat joan ginen. Bertan, Ana Arrietarekin eta Leire Alvarezekin bildu ginen ordu bat inguru. Gaze:Kaleidoskopioren eta Gautenenaren proposamena aurkeztu genuen eta kredituak lortzeko posibilitateagatik galdetu genien batez ere.

Hainbat alternatiba geneuzkan proiektu honentzat. Asignatura baten barruan sartzea, boluntariora, praktika moduan ... Azkenean UPV/EHUko ikasleek 6 kreditu izaten dituzte hautazko moduan. Beraien gomendioa, bide horretatik jutea izan zen. Horretarako, hainbat pauso eman behar dira eta horiek Gautenak eman behar ditu. Horregatik eta Gaze:Kaleidoskopioren proiektuak epe muga duenez, amaitutzat eman dugu Gatunerakin geneukan kolaborazioa.

Esker oneko gutun bat idatzi zitzaion eta gure amaierako ekitaldirako gonbidapena pasa genien. Ekitaldi honetan eragile sozialen azoka bat egingo da eta bertan elkar ikustea espero dugu.

6) TRESNAK EDO ERREMINTAK

Trello:

Proiektuaren prozesu osoan zehar trello tresna informatikoaz baliatu ginen, batez ere komunikazioa eta gaizki ulertuak saiheste aldera. Tresna honek, honetan datza: hiru zutabe bereizten ditu, non egin behar, egiten ari eta egindako gauzak zerrendatzen diren txarteltxo batzuen bitartez; txarteltxo hauek mugikorrek dira, zutabeetan mugitu daitezkeela, gainera eginkizun bakoitzak pertsona bati atxikitzeke aukera ematen du, baita egun muga bat jartzeko ere.

Erreminta honetaz baliatuz, gure proiektuak koordinatuak eta ondo antolatuak izatea lortu genuen, izan ere, kide bakoitzak bere egin beharrak (egin behar kolektiboak ere bazeuden) zeintzuk ziren eta noizko ziren baitzekien.

Proiektuaren pentagonoa:

Proiektu hau aurrera eramaterakoan, GAZE-n lantzen diren hainbat eduki aplikatu nahian, pentagonoa deituriko irudian oinarritu gara, non ahaztu ezin genituen, eta hortaz oinarritzkoak diren ezaugarri batzuk azaltzen ziren. Bertan, bost puntu nagusitzen dira besteak beste: design thinking, kolaboratiboa, ikaskuntza, iraunkorra eta sentsibilizaziotik haratago joatea. Pentagono horren erdialdean berrikuntza berritzailea dugu guzti hauen euskarri nagusi bezala.



Crowdlearning
Kolektiboa



- **Berrikuntza inklusiboa:** Gautenarekin lan egindako prozesu guztian zehar berrikuntza inklusiboak definitzen dituen terminoak buruan edukita egin dugu lan. Gautena zer motatako eragilea den kontuan edukita beraiekin egindako berrikuntzak eta lanak uneoro bete dituzte berrikuntza barne-hartzailearen ideiak. Prozesu guztiaren helburua eta egindako lan guztia beraiei laguntzeaz gain, era inklusiboan edonork atera dezakeela etekina. Baina batez ere autismoa duten pertsoneri eta Gautena elkarteari laguntzea zen helburua.
- **Sensibilizaziotik haratago:** Martxa Urdinaren amaieran, konturatu ginen puntu hau ez ginela guztiz betetzen ari edo gutxienez hobeto egin genezakeela. Horregatik, berriro planteatu genuen nola erantsi genezakeen balio berezi hori. Horrela sortu zen UPV/EHU eta Gautenaren artean marko bat aurrera eramateko ideia, non ikasleek, autismodun haurrei beraien ikasketekin lagunduko zieten.
- **Iraunkorra:** aurreko puntuan kontatu dugun markoaren bidez, guk egindako lanak denboran zehar iraun dezan balioko digu. Guk, marko honen hazia landatu dugu, zuhaitz bat bilakatuko den intentzioarekin. Era honetara gure kolaborazioa ez da laguntza puntual bat bakarrik izango.

- **Design thinking:** metodologia honetan oinarritu gara gure proiektua aurrera eramaterako garaian. Bost fase desberdinetan oinarritu gara (ikertu, zehaztu, ideia, prototipatu, garapena) eta prozesua nola zihoan kontziente izateko lagundu digu. Bestalde, ideiak garatu behar genituenean, gure kreatibitatea garatzeko herramienta lagungarria izan da design thinking-a.
- **Kolaboratiboa:** proiektu hau aurrera eramateko, beharrezkoa izan da kolaborazioan oinarritzea. Hasteko GAZEKideen artean elkarlana beharrezkoa izan da ahalik eta balio gehien erantsi ahal izateko proiektuari, bai Gautenarekin lanean genbiltzanok bai martxa urdinera etorri ziren GAZEKide guztiak. Bestalde, Gautenarekin komunikazio oso ona izan dugu eta horrek asko erraztu digu lan egiterako garaian. Bestalde, Gipuzkoako Campuseko Errektoretzaren laguntza oso garrantzitsua izan da, batez ere markoa aurrera eramaterako garaian. Azkenik, azpimarratu idazkaritza teknikoaren papera, prozesu osoan zehar hor egon baitira behar genuenerako. Guzti hauen laguntzari esker, iritzi guztiak batu ondoren, ondorio askoz interesgarriagoetara iritsi gara, denon multidisziplinidadeaz baliatu garelako.
- **Ikaskuntza:** agente desberdinen kolaborazioari esker, prozesuan zehar bakoitzetik ikasteko aukera izan dugu. Bestalde, gure ikasketa prozesuaz kontziente izan gara, guk eramaten genuelako proiektuak. Era berean, taldeko partaide bakoitza ikasketa-esparru edo disziplina batekoa izanik, hau da, disziplinar tekotasuna eredu izanik, elkarren artean ezagutu eta ikasteko aukera izan dugu. Azken finean, ikaskuntza bizitzan zehar gauzatzen doan prozesu etengabe bat da, eginkizun eta erabaki bakoitzak bere ondorioak dituela; momentu oro erabakiak hartzen ari garela kontuan hartuta, eta horietatik ondorio eta ikaskuntzak ateratzen ditugula aintzat izanez, ukaezina da Gaze:Kaleidoskopion erabaki anitz ere hartu behar izan ditugula, eta guzti horietatik etorkizunean baliagarria gertatu dakigukun ikaskuntza eskuratu dugula.

ESKERRAK

Gautenako kide guztiei, gure proiektua aurrera eramateko eskainitako laguntza guztiagatik, batik bat Jimmy-ri, erakutsitako interes eta kolaborazioagatik.

Bestalde, Gipuzkoako Campuseko Errektoretzari eta zehazki Ana Arrietari, eskeini ziguten atentzioagatik.

Azkenik, mila esker Martxa Urdinera gerturatu ziren guztiei.

Fitxa teknikoa:

Gaze:Kaleidoskopio
Centro Joxe Mari Korta
Manuel Lardizabal Kalea, 2
20018, Donostia-San Sebastián (GIPUZKOA)
Tel.:943 018395
E-mail: gaztekinzale@gmail.com

<http://gaztekintzaile.wordpress.com/>

Donostian, 2016ko ekainaren 2a